



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA: EUSKARA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1. KONPETENTZIAREN DESKRIPZIOA

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzekoa eta gizarte- zein kultura-ingurune guztietan linguistikoki elkarreragilekoa.

Entzutea, mintzatzea eta solas egitea trebetasun linguistiko eta ez-linguistikoak beharrezkoak dituzten ekintzak dira besteekiko eta ingurunearekiko loturak ezartzeko. Horretarako, komunikazio-trukearen berezko arauak erabili behar dira testuinguru ezberdinetan, eta ahozko mintzairaren berezko ezaugarriak identifikatu behar dira komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko diskurtsoak interpretatu eta ekoizteko.

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio-asmok dituzten testu-mota ezberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak.

Hizkuntza-komunikaziorako oinarrizko konpetentziak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarreraren multzoa barne hartzen du.

Abileziak edo prozedurak askotariko diskurtsoak entzun eta ulertzeko nahiz mintzairaren bidez norberaren ideiak adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak dira. Komunikazio-trukea arautzeko beharrezkoak diren estrategiak barne hartzen dituzte, eta baita irakurketa-helburu ezberdinak dituzten askotariko testuak irakurri eta ulertzeko trebetasunak nahiz asmo ezberdinekin askotariko testuak, idazketa-prozesuaren fase guztiak kontrolatuz, idazteko trebetasunak ere.

Ezagutzak edo kontzeptuak beharrezkoak dira hizkuntzaren eta haren erabilera-arauen inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, alderdi linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoei buruzko ezagutzak dira.

Jarrera egokiak dira entzutea, iritziak trukitzea eta besteen usteekiko errespetua nahiz kulturarteko komunikazioarekiko interesa sustatzen dituztenak. Konpetentzia honen funtsezko osagai bat kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazio positiboa da, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa. Era berean, irakurketa zein idazketarekiko jarrera positiboa bultzatu behar da, lehena gozamen- eta ikaskuntza-iturri moduan eta bigarrena gizarte-erregulaziorako eta ezagutza helarazteko tresna moduan.

Konpetentzia hau garatzeak hizkuntzak **erabileraren** bidez ikastea dakar askotariko komunikazio-egoera eta -testuingurutan; izan ere, abileziak edo prozedurak, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian funtsezko eduki direnak, erabileraren poderioz –eta erabilera horren inguruan hausnartuta, hobetu ahal izateko– soilik garatzen dira. Ezinbestekoa da hizkuntza erabilera-egoeratan behatu eta aztertzea tresna hori hobeto menderatu ahal izateko, eta horrek hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten osagai guztiei buruz gogoeta egitera garamatza.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– modu egoki eta eraginkorrean erabiltzean zertzen da, testuinguru ezberdinetako askotariko komunikazio-egoeratan eta gero eta maila formal eta konplexuagoz. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, konpetentzia honen garapenaz aurrez aipatu hizkuntza-trebetasunei lotutako oinarrizko abileziak eskuratzea lortu behar da, komunikazio-egoera eguneroko eta mugatuagoetan.

2. KONPETENTZIAREN DIMENTSIONAK

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bloke handi batzuetan egituratu da, **DIMENTSION** deituak. Dimentsio horietako bakoitza **AZPI-KONPETENTZIA** batzuetan zertzen da, eta azpi-konpetentzia bakoitzerako ikasleak **jakin** eta **egiten jakin** behar duena azaltzen duten **EBALUAZIO-ADIERAZLE** batzuk xedatu dira.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia **DIMENTSION** hauetan egituratuta dago:

- **AHOZKOAREN ULERMENA**
- **IDATZIAREN ULERMENA**
- **MINTZAMENA**
- **IDAZMENA**
- **AHOZKO ELKARREKINTZA**

AHOZKOAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek batez ere hizkuntzaren erabileraren bi arloekin du zerikusia: pertsonarteko harremanak eta komunikabideak.

IDATZIAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek ezagutzaren gizartean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarritzko trebetasunak biltzen ditu.

MINTZAMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak, batik bat norberak kudeatuak, ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honen baitan, komunikazio-egoera ezberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena gobernatzen duten berariazko trebetasunak menderatu behar dira; diskurtso horiek beren edukiaren antolaeran koherenteak eta bateratuak izan beharko dute.

IDAZMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Testuok askotarikoak eta ezberdinak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

AHOZKO ELKARREKINTZA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzeko oinarritzko trebetasun, ezagutza eta jarreraren multzoa barne hartzen du. Berariazko ezaugarriak dituen dimentsio bat da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.

Aldi berean, aipatutako hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimentsio bakoitza **AZPI-KONPETENTZIA** batzuetan zertzen da, jarraian doan taulan ageri direnak:

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

AHOZKOAREN ULERMENA

1. Ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
2. Ahozko testuen helburua antzematea.
3. Ahozko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.
4. Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea.
5. Ahozko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.

AHOZKOAREN ULERMENA

6. Idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
7. Idatzizko testuen helburua antzematea.
8. Idatzizko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.
9. Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea.
10. Idatzizko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.

MINTZAMENA

11. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartzea.
12. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.
13. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.
14. Kontrolako eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.

IDAZMENA

15. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea.
16. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.
17. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.
18. Kontrolako eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.

AHOZKO ELKARREKINTZA

19. Komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.
20. Arau soziokomunikatiboak errespetatzea.
21. Komunikazioari eusteko eta haren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea.

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO-RAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK

EUSKARA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

ENTZUMENA

TESTUAREN DESKRIPZIOA:

- **TESTUAREN ERABILAREN ESPARRUA:** Literatura
- **TESTUAREN GENEROA:** narrazioa
- **SORBURUA:** *Euskadi irratia*
- **IZENBURUA:** Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean



Audioa entzun eta 01-08 bitarteko galderak erantzun.

MELISSA KATUA

Euskara_DBH_melissa.mp3



Testua entzun baino lehen, minutu batzuk izango dituzu galderak irakurtzeko.

Testuaren transkripzioa:

KATUAK BAKAR BAKARRIK SENTITZEN DIRENEAN

Egilea: Mariasun Landa

Kontablea naiz eta fakturak ditut lankide bakarrak. Egun osoan bulegoan egon ondoren etxera joaten naiz, Melissa nire zai egongo dela pentsatuz.

Atea ireki bezain laister, niregana aupatzen da, kokotean biribildu, eta hantxe gelditzen zait eroriko, ez eroriko. Hauxe da inolaz ere kendu ezin izan diodan mania bat! Haserretzen naizelakoa egiten dut eta orduan, saltotxo bat egin eta, berriro lurreratzen da emeki-emeki kexatuz. Melissa gaixoa! Jakina, egun guztia bakar-bakarrik nire zai egon bait da eta bihotza zabaltzen zaio ni ikustean!

Kateme ederra da Melissa. Hankak eta muturra txuriak baditu ere, beltz-beltza da gorputzez. Txarolezko katemea dirudi. Ni ezik, ez du inor kateme eder horrek. Nirekiko duen jaiarak besteengandik apartatzen du eta katuen munduan, guztiz berezi eta baztertua sentitzen dela uste dut. Horregatik, lanordutik kanpo, bere maitasun itsuari nolabaiteko erantzun bat ematen saiatzen naiz. Batez ere, arratseko ordu hits horietan, bulegotik atera eta iluntzen duenean, katuek sentitzen duten kariño falta hori nabarmena izaten da... Orduan hitzegiten diot, laztandu, elkarri kontu txikiak esanaz egon ohi gara ilunabarreko ordu delikatu horiek igaro arte.

Hala ere, ez ezazue pentsa Melissa mimatzen dudarik. Ez. Ez dut inoiz alperrikako sofa-katu bihurtzea onartu. Ez du inoiz poteko katujarik probatu. Alderantziz, bere grinaren deiari jarraituz eguneroko elikadura lortzera bultzatzen dut. Gauero, lepotik lokarri bat lotu eta kalera ateratzen gara paseatzera, zabor-piloetan hazkatuz, bere jatekoa lor dezan. Zaborretan miatzen, arakatzen ikusten dudanean, badakit basa-bizitza datorkiola burura. Zorionsua da. Bigotetxoak txukunduz, begirada garbi bat zuzentzen didanean, beretzat garrantzi handiko norbait naizela adierazten dit amultsuki. Eskerroneko katemea bait da Melissa polita...

Gu biok ikustean, jendeak parre egiten duela badakit. Nire lagunak ere, Melissa dela eta, niregandik urrunduz joan dira eta tabernak... hobe tabernetako solasaldietatik urruntzea, honako irain hauek entzutea baino: «Zer moduz Melissa? Noiz ezkontzen zarete?»...

Auzokoen mesprezua eta atezainaren ondotik pasatzen naizeneko irrifar maliziotsuak ez zaizkit jadanik axola. Katuen mundua ulertzen ez duen jendilajea, besterik ez da. Zeren horiek ez dakite, ez dute sekula jakingo, eguna bakar bakarrik pasa ondoren arratseko ordu berezi horietan, katuok zein triste sentitzen garen!

01

Zein da Melissa katuari kendu ezin izan dion mania?

- A. Zaborretan arakatzea.
- B. Sofa gainean etzatea.
- C. Poteko jana atsegin izatea.
- D. Etxean sartzerakoan kokotean biribiltzea.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** D

02

Zer jaten du Melissak?

- A. Pote jana.
- B. Erosten dioten poteko jana
- C. Zaborretan topatzen duena.
- D. Senari jarraituz, hor zehar harrapatzen duena.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) edukia kritikoki interpretatzea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu
- **ERANTZUN ZUZENA:** D

03

Nolakoa da Melissa?

- A. Zuria.
- B. Txarolezkoa.
- C. Beltza eta zuria.
- D. Kateme arrunta da.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

04

Zer esaten zieten lagunek tabernetako solasaldietan?

- A. Kaixo, basa katuak!
- B. Zer moduz sofa-katu?
- C. Noiz ezkontzen zarete?
- D. Joanak al zarete zabor pilotan miazera?

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

05

Esan zer adierazten dizun testu bukaerako esaldi honek: “
...arratseko ordu berezietan, katuok zein triste sentitzen garen.“

- A. Maitasunaren falta.
- B. Arratseko orduen tristura.
- C. Hizketan ari dena katua dela
- D. Katuak ulertzen ez dituen jendilaje asko dagoela.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) edukia kritikoki interpretatzea.

- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu

- **ERANTZUN ZUZENA:** C

06

Zure ustez, testu honen narratzailea...

- A. Katu bat da.
- B. Melissaren jabea da.
- C. Katuak atsegin dituen norbait da.
- D. Testuak kontatzen duen istorioarekin zerikusirik ez duen norbait da.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA

- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) helburua antzematea

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren xedea identifikatzen du

- **ERANTZUN ZUZENA:** A

07

Hautatu, ondorengo aukeren artean, testuaren esanahia hobeto jasotzen duena:

- A. Melissa ez da katu mimatua
- B. Melissak basa bizitza atsegin du
- C. Melissa eta bere laguna den narratzailea baztertuak sentitzen dira.
- D. Katuek arratsaldeko orduetan bakardadea eta maitasun falta sentitzen dute.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA

AZPI-KONPETENTZIA: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) zentzu orokorra identifikatzea

- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren zentzu orokorra ulertzen du

- **ERANTZUN ZUZENA:** D

08

Zure ustez, zein da testu honen helburua?

- A. Testua entzunez, literaturaz gozatzea.
- B. Katuen sentimenduaren mundua ikertzea.
- C. Katuen bizimoduari buruz hainbat ezaugarri ematea.
- D. Katu zehatz bati buruzko egunerokotasuna duen berria ematea.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** ENTZUMENA

- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (abisuak, arauak, argibideak, albisteak, aurkezpenak, narrazioak, arrazoiketa soilak...) helburua antzematea

ITEMAREN HELBURUA: Testuaren xedea identifikatzen du

- **ERANTZUN ZUZENA:** A


IRAKURMENA

TESTUAREN DESKRIPZIOA:

- **TESTUAREN ERABILAREN ESPARRUA:** Komunikabideak
- **TESTUAREN GENEROA:** artikulua
- SORBURUA:** Karramarro aldizkaria
- **IZENBURUA:** Santo Tomas azoka



Datorren testua irakurri eta erantzun 01-08 bitarteko galderak.



ABENDUAK 21

SANTO TOMAS FERIA (BILBO, DONOSTIA, GASTEIZ...)

XIX. mendean, Euskal Herriko laborantzako lur sail gehienak errentariak (maizterrak) lantzen zituzten. Errentariak lur sailarekin zuen lotura juridikoa aitarengandik semearengana iragaten zen, belaunaldiz belaunaldi.

Lurraren errenta beti egun berean ordaintzen zen, normalean, San Martin egunean, baina askotan epea luzatu egiten zen Santo Tomas egunera arte.

Nagusiak, normalean, ez zituen lurak lantzen, eta hirian bizi izaten zen. Baserritar asko eta asko hirietara joaten ziren egun seinatu hartan, alokairua ordaintzeko diruarekin eta kapoi pare batekin. Ordainetan, bazkari bat ematen zien.

Baserritarrek, hiriburuan zeudela aprobetxatuta, herrietako denda xumeetan aurkitzen ez zituzten artikulua erosten zituzten, eta, horrela, baserriko produkturik onenak saldu. Urteak joan urteak etorri, feria antolatu beharra zegoela ikusi zen, eta hala sortu zen Santo Tomasetakoa. Euskal Herriko udalerrietan garraibideak hobetu zirenean eta baserri guztietaraino pistak egin, feria ez zen gehiago beharrezko izan. Baina baserritarrek, ordurako baserriaren lur gehien jabe eginak, tradizio zaharrari heldu zion, eta jarraitu zuen hirietara etortzen Santo Tomasetan. Horrexegatik, feriak bizirik iraun du, gaur arte.

Karramarro aldizkaria

01

Zein da testuaren helburua?

- A. Jendea Bilboko Feriara joatera animatzea.
- B. XIX. mendeko gizartearen ezaugarriak aztertzea.
- C. Hobeto ulertaraztea Santo Tomas feriaren jatorria.
- D. Azpimarratzea baserritarren produktuen garrantzia.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) helburua antzematea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren xedea identifikatzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

02

Noiztik dugu Santo Tomas feria?

- A. Antzina- antzinatik.
- B. Duela bi mendetik hona.
- C. Erdi Arotik gaur arte iraun duen tradizioa da.
- D. Baserritarrek nagusiei errentak ordaintzen zizkietenetik.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskatutako berariazko informazio gehiena aurkitzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** B

03

Lehen zertara joaten ziren baserritarrak hirira Santo Tomas egunean?

- A. Feria eguna ospatzera.
- B. Errenta ordaintzera eta nagusiaren etxean bazkaltzera.
- C. Errenta ordaintzera, artikulak erostera eta produktuak saltzera.
- D. Baserriko produktu onenak hirian saltzera eta errenta ordaintzera.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) zentzu orokorra identifikatzea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

04

Zer egin behar zuen nagusiak egun hartan?

- A. Ez zuen ezer egin beharrik.
- B. Bazkari bat prestatu baserritarrentzat.
- C. Baserriko produkturik onenak hiriburuetako dendetan saltzea.
- D. Errentaren dirua eta bi kapoiak hartzeaz gain, bazkaria ematea.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskatutako berariazko informazio gehiena aurkitzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** D

05

Zergatik esaten du egileak: “... udalerrietan garraio bideak hobetu zirenean ... feria ez zen gehiago beharrezkoa izan”

- A. Gaur egun interneten bidez egiten direlako erosketa asko.
- B. Baserritarrek autoa erabiltzen dutelako esnea banatzeko.
- C. Errepide berriei esker, errazago delako saldu eta erostea edozein lekutan.
- D. Baserritarrak lurraren jabe direnean ez dutelako gustuko feriaz feria ibiltzea.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) edukia kritikoki interpretatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren edukiari buruz zuzeneko eta zeharkako inferentziak egiten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

06

Zergatik ez zen desagertu feria egun hori?

- A. Baserritarrak lurraren jabe egin zirelako.
- B. Euskal Herriko udalerrietan garraio bideak hobetu egin zirelako.
- C. Baserritarrek egun seinalatu horretan feria ospatzera hirietara joaten segitu zutelako.
- D. Baserritarrak herrietako denda xumeetan erosten zituztelako baserrietan ez zituzten produktuak.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) zentzu orokorra identifikatzea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** C

07

EGIA ALA FALTSUA? Markatu "X" batez laukitxo egokia, adibidean bezala:

| | EGIA | FALTSUA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|---------|
| 0. Santo Tomas feriaz ari dira testu honetan. | X | |
| 1. San Martin egunean ordaintzen zen arren lurraren errenta, Santo Tomas egunera arte luzatu ohi zen. | | |
| 2. Santo Tomas eguna urteen arabera aldatu egiten da, Aste Santua bezala. | | |
| 3. Abenduaren 21ean da Santo Tomas eta egun horretan egiten da feria. | | |
| 4. Santo Tomas egunean baserritarrak hirira joaten ziren nagusiari lur-sailen errentak ordaintzera. | | |
| 5. Santo Tomas egunean produktuen salerosketa egiten zen. | | |
| 6. Feriak gaur egunera arte iraun du baserritarrek tradizio zaharra mantendu baitute. | | |

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
 - **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoetan (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.
 - **ITEMAREN HELBURUA:** Eskatutako berariazko informazio gehiena aurkitzen du
- ERANTZUN ZUZENA:** 1- Egia 2- Gezurra 3- Egia 4- Egia 5- Egia
6- Egia

08

Zein izenburuk bilduko luke testuak adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Aurtengo Santo Tomas.
- B. Santo Tomas feriaren jatorria.
- C. Santo Tomas egunaren garrantzia.
- D. Gaurko feriaren ezaugarri nagusiak.

ITEM DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** IRAKURMENA
- **AZPI-KONPETENTZIA:** Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako idatzizko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoak (argibideak, arauak, iragarkiak, erreferentziako liburuak, albisteak, erreportajeak, kontakizunak, liburuxkak, hezkuntzako web orriak...) zentzu orokorra identifikatzea
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du
- **ERANTZUN ZUZENA:** B

IDAZMENA**TESTUAREN DESKRIPZIOA:**

- **ESKATUTAKO TESTUAREN ERABILAREN ESPARRUA:** Komunikabideak
- **TESTUAREN GENEROA:** Artikulua

01**IDATZI ARTIKULU BAT****Guretzako tokia!**

Lagunekin solasean ibili zara eta konturatu zara herrian edo auzoan ez daudela toki asko gazteak gustura egoteko. Artikulu bat idatziko duzu zure herriko aldizkarian argitaratzeko honelako gauzak komentatzen:

- Herriko/ auzoko gazteek ez dute toki egokirik egoteko.
- Dauden tokiak, umeentzat antolatu dituzte; hortaz, tabernak baino ez dira geratzen.
- Lokalak alokatzea oso garestia da.
- Neguan, batez ere, arazoa larria izaten da.
- Etab.

Saiatu zaitez arazoari irtenbideak ematen:

- Noren laguntzarekin ahal izango zen arazoa konpondu.
- Zein izan zitekeen toki aproposa gazteak egoteko (asmatu bat).
- Nolakoa izan beharko zen toki hori (pentsa zein baldintzak eduki beharko lituzke).
- ...

Oroitu, zure idazkiak:

- **100 hitz** izan beharko ditu gutxienez.
- Zaindu testuaren itxura eta ortografia.
- Antolatu testua paragrafoetan.



A large rectangular area with a solid black border, containing 25 horizontal dashed lines for writing.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:

| | | |
|----------------------|----------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Berriazko irizpideak | <p>P1. TESTUAREN LUZAPENA</p> | <ul style="list-style-type: none"> Hitz kopurua |
| | <p>P2. Egokitasuna</p> <p>(GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA)</p> | <p>Diskurtsoa komunikazio-egoerara moldatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Testua testuinguruari dagozkion erregistroan eta trataeran idatzita dago (formala, informala) Testuaren helburua betetzen da. Pertsona narratzailea atxiki egiten da testuan zehar (testua singularreko 1. pertsonan idatzita badago, honela segitu behar du, ulermen arazoak eragiten dituzten aldaketak egin gabe). |
| | <p>P3. Koherentzia eta kohesioa</p> <p>(GAITASUN DISKURTSIBOA)</p> | <p>Testuaren edukiaren ebaluazioa: bertan ageri diren ideiak, haien antolamendua eta haien arteko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskatutako informazioa ageri da (testua galderan eskatzen den gaiari buruzkoa da). Informazioaren progresioa : <ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta datuak, oro har, modu logikoan antolatuta daude . Informazio garrantzitsua eta berria aurkezten da; ez dago errepikapen gehiegirik ezta koherentziarik gabeko daturik ere . Testu mota bakoitzaren elementu bereizgarriak ageri dira (adibidez, narrazioan: denbora, lekua, narratzailea, aditz denborak ...) eta bere egitura errespetatzen da (narrazioan: aurkezpena-garapena-amaiera eta abar) Testuaren parteak (hitzak, perpausak, atalak) baliabide egokiekin lotuta daude : <ul style="list-style-type: none"> Lokailuak ez dira asko errepikatzen . |
| Irizpide orokorrak | <p>P4. Lexikoa, gramatika eta ortografia</p> <p>(HIZKUNTZA-GAITASUNA)</p> | <ul style="list-style-type: none"> Hiztegi egokia eta zuzena proposatutako gaiarekiko . Errepikapenak eta termino desegokiak (kolokialismoak, arrunkeriak) ez dira ugariak Erabilitako perpaus motak eta haien konplexutasuna. Gramatika elementuen erabilera zuzena (adibidez, komuntadura, esaldiaren elementuen ordena eta abar). Ortografia akatsak. |